

2022an, hezkuntzako gastua % 5,8 hazi da Euskal AEn, eta 4.710 milioi eurokoa izan da

Biztanleko hezkuntzako gastua 2.152 eurokoa izan da, 2021ean baino % 5,9 handiagoa

Euskal AEn 2022an hezkuntzan egindako gastu osoa % 5,8 hazi da, 2021aren aldean, eta 4.710 milioi eurokoa izan da, Eustatek emandako datuen arabera. Gastu osotik, 4.506 milioi gastu arruntekoak izan dira eta 204 milioi, kapital-eraketa gordinekoak.

Biztanleko, hezkuntzako gastua 2.152 eurokoa izan da, eta BPGd-ari dagokionez, % 5,5koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa.

Hezkuntzaren Kontuak jasotzen ditu hezkuntza-erakundeetan nahiz beste edozein ikastetxe edo enpresa motatan egin diren eta iturri publiko edo pribatuek finantzatu dituzten hezkuntza-jarduera arautu zein arautu gabeetan egindako gastu arrunta eta kapital-gastua.

Hezkuntzaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2019-2022

	2019	2020	2021	2022(a)	Aldakuntza-tasa (%) 2021/2020	Aldakuntza-tasa (%) 2022/2021
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA (mila eurotan)	4.165.555	4.182.404	4.451.000	4.709.566	6,4	5,8
GASTU ARRUNTA GUZTIRA	3.988.685	3.993.830	4.265.015	4.505.690	6,8	5,6
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	176.870	188.574	185.985	203.876	-1,4	9,6
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	1.899	1.904	2.033	2.152	6,7	5,9
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	5,2	5,8	5,7	5,5	-0,1	-0,2

Data 2023ko Maiatzaren 30a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua


Azken urteotako datuen analisiak erakusten du 2020. urtearen ondoren, orduan, gastu pribatuan izandako murrizketaren ondorioz, gastu osoaren maila ia hazi ez zela kontuan hartuta, azken bi urteotan hazkuntza berreskuratu dela gastu-mailetan. Zehazki, 2021ean, % 6,4ko hazkuntza izan da, eta 4.451 milioi eurora iritsi da; hura, nagusiki, gastu arrunteko gastuaren ondorio izan da, 2020koa baino % 6,8 handiagoa izan baita. Aldi berean, 2022an, gora egin du bai gastu arruntak bai kapital-eraketa gordinak, % 5,6 eta % 9,6, hurrenez hurren.

Finantzaketaren egiturari dagokionez, azken urteotan, finantzaketa publikoa pribatuaren gainetik hazi da. Finantzaketa publikoa 2019an % 76,0koa izatetik 2022an % 77,0koa izatera igaro da, eta ehunekorik altuena 2020an izan da, gastu osoaren % 77,7ra iritsi baitzen.

Hezkuntza-gastu osoa finantzaketa zuzenaren iturria.

Euskal AEn

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Jarraian egiten den gastuaren analisi xehatua **2021ari dagokio**; izan ere, behin betiko datuak eskuragarri dauden azken urtea da, analisi hori egiteko aukera ematen dutenak.

Finantzaketari dagokionez, eutsi egiten zaio gehiengo finantzaketa publikoari hezkuntza-zerbitzuetan (% 84,3) eta kapital-gastuan (% 61,9); finantzaketa pribatua, berriz, handiagoa da gainerako jarduerak eta ondasunetan (% 58,1), bertan sartzen direla garraioa, eskola-jantokia, liburuak eta eskola-materiala.

Zuzeneko finantzaketa-iturriak Euskal AEn (%). 2021

	Publikoa	Pribatua
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	77,2	22,8
GASTU ARRUNTA	77,9	22,1
Hezkuntza-zerbitzuak	84,3	15,7
Gainerako jarduerak eta ondasunak	41,9	58,1
KAPITALAREN OSAKETA GORDINA	61,9	38,1

Data 2023ko Maiatzaren 30a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua

Funtzioen arabera banakatzearen analisiak adierazten du 2021ean Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak gastu osoaren % 81,3 izan zirela, eta Jarduera Osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza...), berriz, % 6,6 (292 milioiko gastua). Aldi berean, Etxeetan erositako liburuak, eskola-materialaren eta beste ondasun batzuen partidako gastua 155 milioikoa izan zen (% 3,5). Hezkuntza-berrikuntzako gastuari eutsi egin zitzaion (% 3,4) eta Hezkuntza-sistemako administrazio orokorrarekin lotutako gastua guztizkoaren % 1,0ekoa izan zen. Azkenik, kapital-eraketa gordineko gastua guztizko gastuaren % 4,2koa izan zen, 2020an baino 0,3 puntu txikiagoa.

Euskal AEko hezkuntzako guztizko gastua, funtzioen arabera. 2019-2021

	2019		2020		2021	
	mila euro	%	mila euro	%	mila euro	%
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	4.165.555	100,0	4.182.404	100,0	4.451.000	100,0
GASTU ARRUNTA	3.988.685	95,8	3.993.830	95,5	4.265.015	95,8
Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	3.362.522	80,7	3.413.218	81,6	3.620.679	81,3
Garraioa	44.076	1,1	38.629	0,9	45.210	1,0
Jantokia	184.812	4,4	162.859	3,9	202.222	4,5
Beste jarduera osagarri batzuk	48.146	1,2	45.998	1,1	44.985	1,0
Liburuak, Eskolako materiala eta etxeek erositako beste ondasun batzuk	154.273	3,7	151.663	3,6	155.113	3,5
Hezkuntza Sistemako Administrazio Orokorra	42.419	1,0	41.343	1,0	44.887	1,0
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	152.437	3,7	140.120	3,4	151.919	3,4
KAPITAL ERAKETA GORDINA	176.870	4,2	188.574	4,5	185.985	4,2


Data 2023ko Maiatzaren 30a

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAk argitaratu dituen azken datuak aztertzen dira, 2019koak. Urte horretan, Euskal AEn, Erosteke Ahalmenearen Parekotasunean (\$) neuritutako ikasle bakoitzeko gastuaren guztizkoa hezkuntza-erakundeetan 14.386koa izan zen, lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzarako etapak batuta. Hala, Espainiaren (10.694), EB22 batezbestekoaren (12.397), ELGAko batezbestekoaren (12.519) eta Frantzia (13.049) bezalako herrialdeen gainera jarri zuen. Aldiz, besteak beste, Alemania (14.632) eta Suedia (15.337) herrialdeen azpitik. Taularen gorengo muturrean Luxenburgoko dago (25.433).

Lehen, bigarren eta bigarrenaren ondoko hezkuntza-mailei dagokienez, Euskal AEn ikasleko gastua 13.583 (\$) EAP izan zen, eta soilik egon zen Norvegiaren (15.816) eta Luxenburgoren (23.516) atzetik, gastu handieneko herrialdeen atzetik.

Ikasleko urteko gastua hezkuntza instituzioetan (\$) EAPn. 2019



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua eta ELGA. Education at a Glance. 2022

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62